

# 05 Abra

**Erandio**

**Leioa**

**Getxo**

**Portugalete**





# 05

## **Abra**

Bizkaiko historiaren egituraketaren erro nagusia da Bilboko itsasadarra. Haren gainean ezartzen da Bilbo, eta uretan gora eta behera ibili ziren mea, produktu eta salgaiak, inguru hau Bizkaiko Golkoko ekonomiaren baitako gunerik bizienetakoa bihurtu arte; ur bazterretan siderurgia eta ontzigintzako industriak kokatuko ziren, eta itzelezko etekinak sortuko. Inguru honek guztiak gero eta jendeztatuago dagoen Bilbo metropolitarra osatzen du. Bertako hiriak hazi eta hazi ari dira etengabe, iragan industrial distiratsuen lekukotasunak galduz doazen bitartean. Proposaturiko ibilbidea Bilbon hasten da, eta Galean, ozeanoaren gainean, eta Portugaleten amaitzen da.



### **Aurreko orrialdean:**

**Portugalete. Zubi Esekia edo Bizkaiko Zubia.** Alberto de Palacio ingeniari bizkaitarrak 1887an diseinatu, burdinazko arkitekturaren erakusgarria da, mundu guztian balioetsia.

### **Orrialde honetan:**

XX. mendera arte Deustuko San Pedro baserri aldeko eliza gotiko bat izan zen. Nabe zabal eta garaia buruan erretaula nagusia, XVI. mendearen amaierako lan erromanista.

### **57. orrialdea:**

**Erandio. Landako eliza.** Kanpoaldeko arko-solioan etzanda, Martin Ortiz Martiartukoaren eta emaztearen harrizko irudiak, mukulu-erliebean landuak.

### Deustuko Done Petri eliza

XX. mendean ondo sarturik ere, Bilbo inguruko landa-elizatea edo izan zen Deustu. Gune historikotik Done Petri eliza baino ez da gelditzen: hiru tartekeo habearte garai eta nasaiaaren adibide noblea da; burualde zuzena du, eta gurutze gangaz estalirik dago. Atari nagusia hegoaldean dago, eta Errege-erregina Katolikoen garaiko estetikari dagozkion formak erakusten ditu.

Azalduriko guztia, leihoak, euskarri faszikulatuak eta kapiteletako istorioak ikusirik, eraikinaren gorputz nagusia XVI. mendearen hasierakoa dela esan daiteke, eta korua eta dorrearen fustea XVIII. mendekoak.

**Erretaula nagusia** Errenazimentuaren amaierako altzari garrantzitsua da, erromanista, taxu ederrekoa eta tailla nahiz erliebe plastikoz hornitua; Martin Basabek Martín Ruiz de Zubiatek hartu zuten parte. Polikromia geroagokoa da, XIX. mendean berregina. **Santa Katalina** (ezk.) eta **San Nikolas** (esk.) **erretaula** txikiak Beaugrant eskultoreenak dira ustez, XVI. mendearen erdialdekoak.

### Erandio

Bide moderno batek Asua haraneraino eramaten du bidaiaria; bertan Erandioko landa-eremua zabaltzen da, baserri eta larreek eraturiko habitat sakabanatuko lurraldea. Itsasadarretik hurbil dagoen parte, berriz, inguru urbanizatu eta iragan industrialekoa da; hara eraman dituzte, hain zuzen, udalerraren zerbitzu administratiboak. Erandioko Landa edo Erandio Goikoan, eliza, hilerria, eskola zaharrak eta udaletxea daude.

### Erandioko Landako eliza

XV. mendearen amaierako tenplu gotikoa da, burualdea eta gurutzadura izan ezik, horiek XVII. mendekoak baitira. Mailakaturiko hiru habeartetan antolaturik dago; lau tarte ditu, gurutzadurarenaz eta kapera nagusiarenaz gain. Parte zaharreko euskarriak pilare faszikulatuak dira.

Gangek nerbioak dituzte, eta adreiluzko sistema aurreko aldean.

Hiru portaleak ere fase gotikokoak dira: arkiboltez eta kapitel leunak dituzten zutabetxo ukondotuez eraturiko marra-keta zorrotz sinpleak. Eta gotikoa da, halaber, dorrea; oinaldean kokaturik, aire militarra du, eta 1926an errestauratu zen. Gotikoa 1490 ingurukoa da; burualdeko erreformak, berriz, XVII. mendekoak, 1678an amaitzear zeudela, Juan Setien harginaren ardurapean. Oinaldeko horman hondeaturiko arkosolio zorrotz batean, **Martin Ortiz de Martiartu eta emaztearen hilobia** dago: titularren harrizko eskultura exentuez horniturik dago. Idazkun batek bertan dautzanak identifikatzen ditu, eta oheko armarriek haien leinuak. Gotikoak diren arren, beren estetika tenpluarena baino apur bat lehenagokoa da; hortaz, pentsatzekoa da hona ekarriko zizutela.

### Leioa

Bidean aurrerago, Erandioko egitura errepikatzen da Leioan. Itsasadarretik hurbilen dagoen aldea urbanizazio masibo eta industrialera da, eta urrunena landa- eta egoitza-eremua.

### Artaza finka

Errepidearen ezkerrean eta muino baten gainean, Bizkaiko jauregi modernorik garrantzitsuenetariko bat dago, Artaza finka, alegia. Bitor Txabarri enpresaburuak agindu zion etxea Manuel Maria Smith arkitektoari, 1914an, eta honek estilo neoingelesko etxe bikaina egingo zuen, estetika horretako planteamendu funtzional eta formal guztiak baliatuz: adreilua, L formako oinplanoa, teilatu pikoak, hormapiko mailakatuak, behatokiak, tximiniak, biblioteka, atondoak, garajea, bilbadura aizunak eta abar, hori guztia sarbidean Tudor arku gotiko bat duen lorategi hesitu baten barruan.

### Getxo

Handik hurbil, Getxo udalerrira hasten da. Historiari begiraturik, bi eremu





***Orrialde honetan, goian:***

***Leioa. Artzako Jauregia.***

*Landa aldeko jauretxea, Manuel María Smithek Ana Erregina deritzon estilo neoiñgelesean eraikia. Emaitzak gogobete utzi ei zuen bezeroa, Trianoko Markesa.*

***Orrialde honetan, behean:***

*Algortako Portu Zaharra. Kale aldapsuek, etxeek eta dendek lehengo euskal arrantza-portuetako giroari eutsi diote.*

***59. orrialdea:***

*Algorta. Arriluzeko Itsasargia, Abraren gainean esekia. Ignacio María Smith estilo neo-eskaldunaz baliatu zen 1928ko obra ikusgarri honetan.*



ezberdin batzearen emaitza da: baserri eremua, Andra Maria elizaren inguruan, eta marinelena, Algortako portuaren inguruan. Askoz geroago eta XIX. mendearen erdialdeaz geroztik, itsasoko olatuetan bainatzea modan jarri zenean, Areta inguruak hartu zuen interesa, hondartza dela eta, eta geroago Negurik –egoitzazko lorategi-hiria–. Getxo etengabe hazi da.

#### Eguzki Alde etxea

Lehen eraikin interesgarria da; eskuinetara dago, itsasoratu baino lehen doi-doi: estilo neokantabriarreko etxe bikaina da, Bizkaiko adibide neorregionalistarik onenetakoa, Leonardo Rucabado arkitektoak 1918an egina.

Dorrea, ataripeak eta formak –Herre-raren eraginpeko estilo errenazentistatik ez oso urrun– dira arkitekto horrek Eguzki Alden egindako lanaren ezaugarri nagusiak. Bide gurutzean gaudela, gomendagarria da itsas ertzetik eskuinetarantz jarratzea, Algortara bidean. Bizkaiko burgesiak XX. mendearen hasieratik gutziazitu zuen behatoki garai hau, bere jauregiak kokatzeko.

#### Lezama Legizamon jauregia

Beheko solairuko arkuak eta Salamankako Monterrey jauregi platereskoan inspiraturiko dorre pinakuluduna dira eraikinaren funtsezko osagaiak. Algortako lekurik nobleenean kokaturik, ez da, egia esateko, adierazpide bakarrekoa, fase ezberdinen emaitza baita: estilo neokantabriarra eta neoingeleza. Bi arkitektoen lana da: José Maria Basterra, 1903, eta Manuel Maria Smith, 1919.

#### Arriluzeko jauregia

Apur bat aurrerago, jauregi hau nabarmentzen da, batez ere bere neurriengatik eta ia gaztelu neoerdiarotarrekoa den antzerki kutsuagatik, dorre almenadunez horniturik dagoela. Horrez gain, azpimarratzekoak dira materialak, adreilu gorria, hain zuzen. Miguel Oriol arkitektoak marraztu zuen eraikina, 1910ean.

#### Arriluzeko galeriak

Egun ez dagoen etxe batenak izan ziren, eta Ricardo Bastida arkitektoak egin zituen, 1918an. Ibiltzeko moduan dagoen galeria dinteldua da; gainera, finkaren eustorma da. Hainbat tartetan sinkoputzen da, eta oinean duen Ereaga hondartzako paisaiaren funtsezko partea da. Italiako Errenazimentuko villak ekartzen ditu gomutara.

#### Arriluzeko itsasargia (Naufragoen Etxea)

Aurrean bertan dago itsasargi ikusgarri hau; estilo neoeuskaldunekoa da. Dagoen moduan, Abraren gainean zintzilik pentsatu zuen Ignacio Maria Smithek, 1928an. Haren ondoan, kirol portua eraiki da, atrakaleku ugariz eta hainbat zerbitzuz horniturik.

#### Portu Zaharra

Hondartza amaitu eta gutxira, Algortako portu txikia hasten da: bertan kokatu zen betidanik Algortako marinela jendea, itsasadarraren ahoan. Asko dira oraindik ere auzo honek gordetzen dituen itsasoko oroitzapenak, baina guztien artean giroa da nagusia, harrizko kale estu, hautsi eta aldapatsuek sortzen dutena, arrantzaleen etxe xumeek eta tabernek muinoaren hegalean gora egiten dutela; bigarren solairura igotzeko eskailerak dituzte bereizgarri. Bebarru dinteldu zabala duena San Nikolas kofradiaren egoitza izan zen. Datatzen zaila bada ere, izaera herritarrari dagokion legez, arrantzaleek beren auzo eta etxeei ematen dieten nortasunaren adierazgarri egokia da Portu Zaharra. Bera bisitatzeko, gomendatzeko da automobila beheko aparkalekuan uztea.

#### Galearrantz

Proposatzen dugun Galearainoko ibilaldia higienikoa da batez ere. Baina, horrez gain, badu interes monumentalik. Portu Zaharreko Ribera kaletik abiatzen da, eta hareharrian landutako Usategiko aldapan gora eginik, izen bereko behatokia iristen da, eta bertatik, pasealeku



lau batetik, Arrigunaga hondartzara. Hondartzaren eta itsasoak zizelkatu-rikio labar malkartsuaren gainetik, Galeako pasealeku lau eta modernoa luzatzen da, ozeanoari begira. Bertatik, Bilboko itsasadarraren bokalea –Abra– ikusten da bere zabalean: superportua, Serantes mendia, Trianoko mendiak, Castro Urdiales eta Santoñako itsasertza. Itsasoko bideei irekitako behatokia da.

**Axerrota deritzona** 1726–1727an eraiki zen, lehorte handiak izan zirenekoan; kono-enbor formako harlangaitzezko eraikina da, Bizkaian dauden beste batzuk bezala, eta Mantxakoen antz handia dauka. Gaur egun erakusketa aretoa da, eta jatetxe bat du erantsita.

Eskuinetara, berdez margoturiko horma batek hilerria mugatzen du; haren barruan, arkitekturaren nahiz eskulturaren ikuspegitik interes handikoak diren panteoi batzuk daude. Eskalan eginiko arkitekturaren eta panteoi zizelkatuen barruan, hainbat estilotako elementuak ikus daitezke, bertako burgesiak izen handiko arkitekto eta eskultoreei agindurikoak. Hortaz, joera neoediarrotarrekoak dira Antonio Basagoitiren hilobi kaperak (Fidel Iturria, 1909), eta Galdizena (Mario Camiña, 1909), berriz, modernista. Eskultura-elementuen artean, aipagarriak dira Cortinarenak (M. Garcia de Salazar, 1914), Emilio Basagoitirenak, (egile bera, 1918), eta Venancio Etxebarria, (Quintín Torre, 1943). Cosme Etxebarrietaren kriptak (Ricardo Bastida, 1923) San Kosmeren tailla adierazkorra gordetzen du, Francisco Durrioki eginikoa.

**Galeako gotorlekua**, bestetik, kostaldearen parte honetan pirata ingelesen aurka antolatutako instalazio eta bateriak multzoaren baitan ulertu behar da. Gotorlekuaren funtsezko ezaugarriak hauek dira: izar formako oinplanoa, artilleriako ahoak kokatzen direneko ezponda, eta asmo monumentaleko portalea. Barruan, seinaleak egiteko dorrea dauka, zilindrikoa eta harlanduzkoa.

#### **Orrialde honetan:**

**Areeta.** 1954tik Mesedeetako Eliza Alfonso Ramilen horma-pintura figuratibo eta postkubistekin apaindu zen. Oso kolore biziko lanak dira.

#### **61. orrialdea:**

**Portugalete. Víctor Chávarriren omenezko monumentua.** Euskadiko industrializazioan enpresari gailena izanik, Blay eta Querol katalanek urtzailaren eta harri-zulatzailaren irudiak erabili zituzten haren eginen alegoria gisa.



Jaime Sycre arkitekto militarrek marraztu zuen, 1740an; gerora, dorrea erantsiko zen. Oso egoera kaskarrean dago; hala ere Bizkaian kontserbatzen den bakarra da. Eta itsasoaren gaineko eremu luze eta estu honetatik jarraituz, **Galeako itsasargira** heltzen da; geroago golf zelaira, hipika klubera eta aisialdirako beste zona batzuetara, guztiak ingurumen kalitate handikoak.

#### Areeta

Leioatik itsasoratu zen puntura itzuliz gero, Areeta auzoan sartzen da bidaiaria; izan ere, ibaiaren eskuinaldeko haretza eta etzeak –Maximo Agirrek 1860 inguruan erositako herri lurrak– urbanizatzearen ondorioa da auzo hau. Bertan marrazturiko kaleak txaletez bete zituen gizarte burgesak, itsasoko bainuen, kasinoko jokoaren edota jolas itsaske-taren berritasunak ezagutzeko irrikaz. Bulebar zabal batek mugatzen du Zugazarte ingurua; balio monumental handiko eraikin ugari ditu, itsaso aldera batez ere. Adibidez, «Club Marítimo del Abra» elkarrearen egoitza aipa daiteke, Agirretarrek 1868an bertan eraikitako bainuetearen ondorengoa. Inguru honetan, beste jauregi batzuen artean, **Iduri Etxea** (Cisco Etxea) nabarmentzen da: Manuel Maria Smithek eraiki zuen, 1909an, estilo neoingeleseko Ana Erreginaren moldean, eta kapitela konikoaz amaituriko dorrea da bere irudirik eza-gunena. Areetako parrokiak –**Mesede-etako Andra Mariari** eskainia– 1880ko beste bat ordezkatu zuen 1941ean. Gaur eguneko eraikin handia da, habearte bakarra, kapera baxuak eta gurutzadura dituen; azken hau kupula handi baten bidez egiten da ageriko. Nabarmena da, halaber, kanpandorre garaia. Zalantzarik gabe, elizaren sorreran parte hartu zuten arkitektoek – Garamendi, Galindez, Chapa eta Gortázar– gogoan izan zuten Bilboko Joanes Santu bien eliza, barrualdean ikus daitekeenez. Azpimarratzekoak dira, gainera, Alfonso Ramilek 1959az geroztik egindako margolanak.



#### Portugalete

Itsasadarraren beste aldean Portugaleteko parte zaharra ikusten da, mendi hegal piko baten gainean etzanik. Erdi Aroko hiribildu zahar hau –1322az geroztik foruduna– ibai portua izan zen lehenik; geroago, uda emateko lekua, eta, gaur egun, lo hiria.

#### Zubi esekia

Gomendatzekoa da zubia hartzea, Portugaletera heltzeko; Alberto Palacio ingeniari bizkaitarrak 1887an marrazturiko ingeniaritza-lan ospetsua da. Bizkaiaeren ikonorik topikoenetako bat izan da denbora luzean, eta XIX. mendearen amaierako Europako burdinazko arkitekturaren adierazgarritzat hartu da. Kableen bidez zintzilikatutik eta oinezko nahiz ibilgailuentzat apailaturik dagoen taula batek itsasadarraren bazter biak lotzen ditu, bi eremu aski ezberdin direnak, baita gizarte ezaugarriei dagokienez ere.

Zubi esekitik lehorreratzeko gunea –kaia– interes monumental handiko etxe ilara bat izan zen orain gutxi arte; geroago, ordea, balio gutxiagoko etxeak jarri dira lehengoan ordeiz. Plazaren izkinan dagoen hotela inguru horren parte zen; Manuel Calvo indiano dirudun eta eskuzabalaren egoitza izan zen. 1901ean herriari eman zion, eta gerora hotel bilakatu zen; arestian berriz ere eraiki da, sute baten ostean.

#### Bitor Txabarriren monumentua

Plazan dago, eta bera egiterakoan ohorezko eskulturako espezialistek hartu zuten parte, omenduak merezi zuen legez, azken mendeetako portugaletar pertsonaiarik garrantzitsuenak, enpresaburua eta politikari gailena izan baitzen. Kareharrizko idulki baten gainean brontzezko bi irudi agertzen dira, naturala baino tamaina handiagokoak: harri-zulataile bat eta urtzaile bat dira, Txabarri lehiatsuaeren bi espezialitateak gogora ekartzeko. Eta idulki garai baten gainean, gizon gailenaren brontzezko



bustoa. Aurkezpen moduari dagokionez, monumentu tradizionala da; Miguel Blayren eta Agustin Querolen (1903-1907) zizelkatze lanaren kalitatea da aipatzekoa.

### Hirigintza

Plazaren puntu honetatik ongi asko ikus daiteke hiribilduaren jatorrizko hirigintza-egitura: itsasadarrera doazen hiru kale maldatsu eta zuzen, sestrakurbekin bat datozen kalezuloek ebakiak.

### Salazar dorrea

Kokaleku estrategiko batean dago, Andra Maria kalearen goiko partean; orain dela gutxi kultura-etxe bilakatu da. Oso errestituraturik dago –1934ko gertaeren ostean ere errestituratu zen–, eta jatetxe



bat jartzeko eranskin bat gehitu zaio arestian. Otxoa de Salazar herriko buruzagiak agindu zuen nukleo nagusia eraikitzeko, 1494an. Gerora, etxaurre gotortu batekin sendotuko zen; egun arku dobeladuneko atetila gelditzen da haren oroigarri.

#### Andra Maria basilika

Gorago, Getxo eta Abraren gaineko panoramika bikainaren gainetik nabarmentzen dela, Bizkaiko elizarik monumentalenetakoa dugu. Mailakaturiko hiru habeartetan antolaturiko bost tarte ditu, Erdiko habearteak burualde alakatua duelarik. Gainera, kapera partikular planifikatuak ditu estribuen artean. Estalkia izar formako gurutzegangaz eginda dago Erdiko habeartean, eta gurutzaturiko bi nerbioez albokoetan; guztiak ere kapitelen ezberdinak dituzten pilare faszikulatuen gainean bermatzen dira. Bada, bestetik, triforio bat –habearte nagusira ematen duen korridore estua, alegia–, oso eragin estetiko duena. Aipagarria da, halaber, leihoen multzoa, argi-zuloz osatua, gotiko berantiarren estetikarekin bat. Oinaldean gotor-dorrea dauka, bere baitan atari arkitektoniko zutabeduna babesten duena; mailakaturiko bi gorputz ditu, eta kanpandorre alakatua, goian kupula duena.

Parte hau guztia gainerakoa baino modernoagoa da, XVII. mendeko obra barrokoa funtsean. Kroskoa, gotikotik Errenazimenturako iraganbidekoa, 1492an hasi zen egiten, eta XVI. mendean ondo sarturik amaituko zen; obrak Juan Garita harginaren ardurapean egon ziren urte askotan. Orain dela urte gutxi arretaz errestituratu da. Parrokia-museo txiki bat dauka.

**Erretaula nagusia.** Polikromatu gabeko intxaur egurrez eginda dago; elizaren hiru horma-ataleko alakari egokitzen zaio mazoneria, honela banaturik: hiru kale, istorioetarako; lau kalearte, eskultura exentuetarako, eta lau gorputz harrizko pedrelaren gainean. Azken

honetan, obraren sustatzailearen irudia dago zizelkatutik, Lope de Salazar errejidorearena, alegia; lan horretaz Juan de Beaugrant eta Juan Aiala eskultoreak arduratu ziren, 1549az geroztik hainbat erliebe eta tailla moldatu zituztenak. Estetika errenazentista adierazkorreko lan handi horretatik, eskuinaldekoa –kalitaterik handiena duena– lehenengo irudigilearena da. Haren tailla bizi eta adierazkorrak Bizkaiko aipagarrienetakoak dira. Ezkerreko kaperetako batean irudi etzanak dituen hilobi errenazentista arkitektoniko eder bat berreskuratu da, eta beste batean **gurutzefika** hispaniar-flandestar bikain bat dago, hainbat mendetan Portaleko ermitaren buru izan zena –egun desagerturik dago ermita hori. **Done Jakueren erretaula** errenazentista ere aipagarria da; lau zutabe korintoar ildaskatu eta burdin hesia dituen kapera batean dago; hesia garrantzi handiko forja-lana da, eta 1569ko kartela du.

Burualdeko hormetan **bi margolan** daude, XV. mendeko irudi flandestarren usaina dariela bie; triptikoa Memlingen arrastoari darraio, eta taula Coffermansenari.

**Organo** Henri Didier etxekoa da, Epinal-en (Frantzia) eginia, 1903an.



#### 62. orrialdea, behean:

*Portugalete. Santa Maria basilika. Lan gotiko monumentala da, XV.aren amaierakoa, eta hiru nabeak mailaka eraikiak dauzka. Triforioa du, eta Errenazimenduko erretaula nagusia, Juan de Beaugrantek eta Juan de Ayalak tailatua, bikaina da.*

#### 62. orrialdea, goian:

*Beiratea: Ama Birjinaren Aurkezpena. Lan moderno bada ere, lehenengo trazaria gotikoetan txertatu da, sabaizulo biki eta zorrotz bat zegoen tokian.*

#### Orrialde honetan:

*Beiratea, jatorrizko zuloan jarria. Gaia kolore bizietako landareak dira.*

